

2021

TAILERRA

BELDUR
BARIK

STOP

**Nola prebenitu, Beldur Barik jarrerarekin,
indarkeria matxista gazteen artean**
(Aurrez-aurre edo on-line, Zoom plataformaren bidez)

GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

**TAILERRA: Nola prebenitu, Beldur Barik jarrerarekin,
indarkeria matxista gazteen artean
(Aurrez-aurre edo on-line, Zoom plataformaren bidez)**

Bilbo

Aurrez aurre: Bilbon, GEBren egoitza. Uriortu kalea, 11 – behea

On line: Zoom plataformaren bidez

Data: irailaren 22an

Izen-emate epea: uztailaren 9tik 13ra eta, lekua geratzen bada, irailaren 1etik 10era

Ordutegia: 9:00etatik 13:30etara

Hizkuntza: euskera

Aurrez-aurreko talde kopurua: 12 pertsona

Entzule-talde kopurua (on line): 15 pertsona

Izena ematea: www.gaztebehatokia.euskadi.eus



STOP

Nola prebenitu,
Beldur Barik
jarrerarekin,
indarkeria
matxista gazteen
artean

Beldur Barik euskal gazteen artean indarkeria matxista eta sexista prebenitzeko erakunde arteko programa bat da (www.beldurbarik.eus) eta bere XII. edizioan dago.

Emakundek kudeatzen du, Eudelen eta hiru foru-aldundien laguntzarekin, eta Hezkuntza Sailaren, Gazteria Zuzendaritzaren, UPV/EHUren eta EITBren laguntzarekin.

Indarkeria sexistaren jatorria kultura matxistan dagoela ulertuta, ezinbestekoa da gizarte- eta kultura-eredu horri eusten dioten balioen eta sinesmenen multzoa eraldatzea. Eta eraldaketa sozial horretan lagundu ahal izateko, **programaren helburua da gazteekin batera hausnarketa- eta eztabaida-prozesuak sustatzea, Beldur Barik jarrera azpimarratuz.**

Beldur Barik jarrera feminitate- eta maskulinitate-eredu tradizionalen inposizioa hausten duten adierazpen multzoa da, eta erreferente positiboak eta ahalduntze-erreferenteak eta indarkeria matxistaren aurrean erantzun proaktibo, sortzaile eta eraldatzaileak ikusarazten dituzte.



**BELDUR
BARIK**

STOP

Nola prebenitu,
Beldur Barik
jarrerarekin,
indarkeria
matxista gazteen
artean

Formakuntzaren helburuak:

- Indarkeria sexista eta matxistari buruzko oinarrizko kontzeptuak ikastea (eta horiek gaztaroan dituzten berezitasunak) eta indarkeria horren aurreko ikuspegi prebentiboa ikastea
- Beldur Barik filosofia ezagutu eta ulertzea
- Beldur Barik programa, haren funtzionamendua eta tresnak ezagutzea
- Beldur Barik 2021 heziketa-tresnak ezagutzea
- Gazteen artean indarkeria sexista eta matxista prebenitzeko egungo erronka nagusietan sakontzea
- Indarkeria matxistaren prebentzioan esku-hartzeko esperientziak eta oztopoak, zailtasunak eta aukerak partekatzea
- Indarkeria matxista prebenitzeko jardunbide egokiak identifikatzea

Metodologia:

Metodologia teoriko-praktikoa izango da. Azalpen teorikoak eta dinamika parte-hartzaileak tartekatuko dira, baita bideoak ikusi ere.

Birtualki parte hartzen dutenek entzule gisa parte hartuko dute.



Nola prebenitu,
Beldur Barik
jarrerarekin,
indarkeria
matxista gazteen
artean

Hartzaileak:

Lehentasuna izango dute 12 eta 26 urte bitarteko gazteekin lan egiten dutenek edo lankidetzan dihardutenek (entitateetan, elkarteetan, herri-administrazioetan, enpresetan, ikastetxeetan, boluntariotzan....) Horrez gain, kontuan izango da izen-emateen hurrenkera.

- **Gazteen arloko langileak** (Gazteentzako Informazioa, udalak, aldundiak, gazte elkarteak eta aisialdikoak, eta beste entitate batzuk).
- **Hezitzaileak.**
- **Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako orientatzaileak.**

Edukiak:

- Zer da indarkeria matxista eta nola adierazten da gaur egun euskal gazteen artean?
- Indarkeria matxistaren prebentzio-ikuspegiaren oinarriak
- Beldur Barik jarrera eta filosofia
- Beldur Barik 2021 heziketa-tresnak: edukiak eta horiek erabiltzeko jarraibideak
- Beldur Barik lehiaketa eta beste tresna eta baliabideak
- Indarkeria matxistaren prebentzioa: erronkak eta aukerak
- Indarkeria matxista gazteen artean prebenitzeko jardunbide egokiak

**BELDUR
BARIK**

STOP

Nola prebenitu,
Beldur Barik
jarrerarekin,
indarkeria
matxista gazteen
artean

Dinamizatzailea:

Irati García López de Aguleta. Beldur Barik-eko Idazkaritza Teknikoaren heziketa-educien arduraduna (ERROTIK Kooperatiba Feminista).

Erakunde antolatzailea:

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA

Gazteria Zuzendaritza

Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Saila • Eusko Jaurlaritza

944031645 • gaztebehatokia@euskadi.eus

**BELDUR
BARIK**

STOP

Nola prebenitu,
Beldur Barik
jarrerarekin,
indarkeria
matxista gazteen
artean